



## SANFERMINAK 2014

### KARTEL ETA PORTADA LEHIAKETA

Lesakako Udalak lehiaketa deitzen du, 2014ko Sanferminetako programaren azala eta bestak iragarriko dituen kartela aukeratzeko.

#### ARAUTEGIA

**-Kartelak** kartulina edo paper lodian aurkeztu behar dira, norberak nahi duen teknika erabiliz.

**-Azalak** aurkezten ahal dira marrazkiz edo argazkiz eginak.

Neurriak: **Azalak:** 210 x 297 mm osotara; **Kartelak:** 420 x 594 mm osotara.

Derrigorrez, bertan agertu behar du: **LESAKA. 2014ko SANFERMINAK.**

-Gaia: norberak nahi duena, zertarako den kontutan hartuta.

-Lanok jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan behar dute.

-Partehartzaileak: Lesakan jaioak edo bertan erroldatuak.

-Aurkezpena: lanak sobre batean sartuta aurkeztuko dira udal bulegoetan. Sobre honek eta lanak berak izenburu bat izanen dute, sobrean adieraziko dena. Sobre horren barruan bertze sobre ttiki bat itxita, eta bertan aurkezlearen izen-deiturak, helbidea eta telefonoa idatziko dira.

-Partehartzaile bakoitzak nahi adina lan aurkezten ahal ditu.

-Aurkezten diren lan guzietan erakusketa bat osatuko da Harriondoa Kultur Etxean, apirilaren 17tik 27ra (biak barne).

-Herri bozketak erabakiko du lehiaketa, eta haren erabakia apelaezina izanen da. Horretarako erakusketak irauten duen bitartean, bertan, Lesakan jaioak edo bertan erroldatuak direnak, bozketak egiteko aukera izanen dute aipatutako egunetan. Honetaz gain web orriaren bidez ere bozkatzeko aukera izanen da.

-Aurkezko epea: **apirilaren 11 13:00 orduak arte.**

-Aurkezten diren lanak Sanferminetako programan argitaratu ahal izanen dira.

-Udala jabetuko da lan sarituez. Bertzeak itzuliko dira.

#### SARIAK

##### Kartelak:

1.a.....**250 euroko bonoa** Lesakako ostatu, denda edo/eta zerbitzuetan gastatzeko.

##### Azalak:

1.a.....**250 euroko bonoa** Lesakako ostatu, denda edo/eta zerbitzuetan gastatzeko.

Lesakan, 2014ko martxoaren 14a

Alkatea,

